

altza porru!

2014ko martxoa · 52

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHTE Allemendi 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · trikitixa@trikitixa.net



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

Badator San Josetako Jaialdia

Ate joka datorkigu trikitizaleen agendan urteroko zita garrantzitsua bilakatu den San Josetako trikiti jaialdia. Martxoaren 23an ospatuko da Azpeitiko Soreasu Antzokian. Trikiti munduari lotutako norbait omentzeko aitzakia izan da jaialdi hau urte askotan, eta iazko edizioan salbuespena eginda, omenaldi formatuan burutuko da aurtengoa ere.

“ZENDOIA” TRIKITILARIA OMENDUKO DUTE AURTEN

Azkoitiko Martirieta auzoan jaiotako Tomas Zubizarreta “Zendoia” trikitilaria izango da aurtengo omendua. Kartela osatzen duten partaideei dagokionez, belaualdi eta estilo desberdinetako musikariak oholtzaratuko diren arren, guztiek dute lotura estua “Zendoiarekin”; auzokide edo herrikideak direlako, garai beretsuan ibili zirelako plazan....

Hona hemen parte hartuko dutenen zerrenda:

- Lurdes, Zabale eta Larrañaga
- Zumarragako Trikitixa
- Epelde eta Landakanda
- Martittetarrak
- Aizpurutxo anaiak
- Itzeder, Egurrola eta Montte
- Izer aita-semeak

SARRERAK AURREZ EROSI DAITEZKE

Iaz bezalaxe, sarrerak erosteko bide bat baino gehiago izango dute San Jose Trikiti Jaialdira gerturatu nahi dutenek:

Azkoitia edo Azpeitira gerturatzeko arazorik ez dutenek, Azpeitiko Pastorkua, Ametsa eta Mendizabal tabernetan edo Azkoitiko Ixidro Erretegian izango dute sarrerak erosteko aukera.

Telefonoz erreserba egiteko, aski duzue **943 83 28 28/ 657 794 217** zenbakietara deitzea edo trikitixa@trikitixa.net helbidera e-posta bat bidaltzea. Aurrez erreserba eginda dutenek, 16:00etatik 16:30era bitartean hartu beharko dituzte sarrerak Soreasu antzokiko leihatilan. Denbora tarte horretan jasotzen ez diren sarrerak salgai jarriko dira.

Nolanahi ere, 16:00etatik aurrera sarrerak salgai egongo dira leihatilan bertan.

NOIZ: Martxoak 23, igandea, 17:30ean.

NON: Azpeitiko Soreasu antzokian.

Euskal Telebistan ere izango da San Josetako trikiti jaialdia ikusteko aukera.

San Jose
Trikiti Jaialdi
omenaldia

Martxoak 23 igandea 17:30 tan
Azpeitiko Soreasu antzokian

Zendoia

Partaideak:
Lurdes, Zabale eta Larrañaga
Zumarragako trikitixa
Epelde eta Landakanda
Martittetarrak
Aizpurutxo anaiak
Itzeder, Egurrola eta Montte
Izer aita-semeak

2013KO BALANTZEA ETA 2014RAKO EGITASMOAK ONARTU DITU URTEKO BATZAR NAGUSIAK

Martxoaren lehen egunean, Adunan egindako Batzar Nagusiak, izako balantzea egin eta 2014rako egitasmoak onartu ditu. Gauzatutako proiektuen eta egindakoen azalpena duzue jarraian, Euskal Herriko Trikitixa elkartearen lan ildo nagusienetan banatuta.

DOKUMENTAZIOA:

- ◆ Dokumentazio zentroa osatzen eta aberasten jarraituko du Elkarteak, trikitixarekin lotura duen guztia gordez.
- ◆ Soinuaren liburutegia bildumako 10. alea argitaratuko du 2014an Trikitixa Elkarteak. Zendoiar eskaintako biografia liburu diskoa Laxaro Azkunek idatziko du.
- ◆ Iaz hasitako Hauspo Kontari egitasmoarekin aurrera jarraituko du Elkarteak, adineko trikitilari eta panderojoleak elkarrizketatuz.

TRANSMISIOA ETA IRAKASKUNTZA:

- ◆ TRIKITIXA EGUNA. 2013an bi urtez behin egitea erabaki ostean, 2014ko ekainean egin nahi da Euskal Herriko Trikitixa Eguna baina zehazteke dago.
- ◆ INPERNUKO POZA JARDUNALDIAK. Diskogintza izan zuten aztergai 2013an izandako jardunaldiek hitzaldi eta mahai-inguru bidez. 2014ko jardunaldien gaia zehazteke dagoen arren, Donostian izango dira iraileko lehenengo astean.
- ◆ MOLDAKETAK BI AHOTSETARRA. Iaz bezala, Joseba Tapiak egingo ditu aurrez hautatutako piezen moldaketak. Orain artekoak bezalaxe, www.trikimailua.com-en zintzilikatuko dira moldaketa hauek ere.

KOMUNIKAZIOA, HEDAPENA ETA ZERBITZUAK:

- ◆ SAN JOSE JAIALDIA. Martxoaren 23an egingo da Azpeitiko Soreasu Antzokian. Xehetasun gehiago aurreneko orrialdean.
- ◆ GEURE KOLKOTIK 2014. Pieza berrien bildumako bosgarren alea kaleratuko da aurten. Partaideak honakoak izango dira: Astiasaran II, Eneritz Bengoetxea, Aritz Alustiza, Maitane Aierza eta Iker Dorronsoro. Aurreko aleetan bezalaxe, trikitixa eta perkusioa uztartuko dituzte hiruna pieza berri grabatuz.
- ◆ DISKOAREN AURKEZPENEA. 2013an Faborez diskoa Azkoitiko Balda plazan aurkeztu zen erromeria bidez, eta Geure Kolkotik 2013 berriz, Zumarragako Zelai Arizti aretoan. Tokia zehaztu gabe dagoen arren, 2014an ere badu-

gu kaleratuko dugun Geure Kolkotiken ale berria aurkezteko asmoa.

- ◆ AUDIO PRODUKZIOAREN SALMENTA ELEKTRONIKOA. Elkarteak, orain arte sortutako audio produkzioa interneten zabaltzea erabaki du. Entzungai nahiz salgai jarzteko bide eta aukera ezberdinak aztertuko ditugu.
- ◆ FAKTUREN ZERBITZU BERRIA. Udaletatik eta bestelako erakundeetatik trikitilari zein panderojoleei eskatzen zaizkien fakturak bideratzeko azpiegitura martxan jarri dugu dagoeneko. Zerbitzu honen beharra izanez gero, eskatu informazioa trikitixa@trikitixa.net helbidean.
- ◆ ZUZENDARITZA. Zuzendaritza taldea bere horretan mantenduko da.



Lehendakaria: Agurtzane Elustondo,

Lehendakari orde: Iosu Arrizabalaga "IZER"

Idazkariak: Maider Jauregi eta Eneritz Gorrotxategi

Diruzaina: Juanjo Manterola

Bokalak: Aritz Alustiza, Andoitz Antzizar, Eneko Dorronsoro eta Joseba Tapia

Aipatutako egitasmoez gain, Elkarteak www.trikitixa.net eta www.trikimailua.com webguneen eta Altxaporruren bidez zabalduko du bere berri, eta jakina trikitilari zein trikiti zaleei bere zerbaitzua eskaintzeko prest izango da.



SAREAN DA "ZENBAKIZ"

Aspalditik erabili izan dira partitura zifratuak trikitia erakusteko, baina asko dira papera eta erregela hartuta partitura berriak sortzen aritu behar izan duten irakasleak. Partiturak modu errazagotan sortzeko premia ohartuta, sareko editore bat sortzea otu zitzaion Lasarteko Tirikitrauki musika dendako Juanjo Manterola eta Amaia Orexari. Iametz Interaktiboa enpresak garatu du eta iragan otsailaren 25ean aurkeztu zuten Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean partitura zifratuak sortzeko balio duen editorea.

Aurkezpenean izan ziren Tirikitrauki musika dendako Amaia Orexa eta Juanjo Manterola, Joseba Tapia eta Iker Goenaga trikitilariak, Jorge Jimenez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria eta iametz Interaktiboa enpresako Julen Irazoki.

"Zenbakiz"-ek partitura "zifratuak" modu erraz eta erosotan sortu eta gordetzeko aukera ematen du eta nahi duen orori irekita dago. Erabiltzaileak erabaki ahal izango du sortutako partiturak artxibo pribatueta gordetzen dituen edo beste erabiltzaileen bistan uzten dituen.

Editorea erabili nahi izanez gero:

www.tirikitrauki.com/zenbakiz



EUROPA OSOAN ENTZUTEN DA TRIKITIXA

Kontu jakina da trikitixak ez duela muga geografikoez ulertzen eta horren erakusgarri da, otsailean argitaratutako *World music charts Europe* deritzaien zerrendan bi trikitilari agertu izana. 5. postuan agertu da Kepa Junkeraren "Galiza" diskoa eta 6. postuan berriz, Korrontzi, "Tradition 2.1" lanarekin. Munduko musikan adituak diren 50 lagunek aukeratzaren dute zerrenda nola osatu eta ospe handia du European.



* Erredakzioa itxi aurretik jakin ahal izan dugunez, Kepa Junkera 4. postuan ageri da martxoko zerrendan.



XAIKO, TRIKI PUNK SKA TALDE BERRIA SORTU DA AGURAINEN

Xabi Arakama eta David Aguayok sortu dute taldea. Musika talde ezagunetako partaide izan diren zortzi musikaririk osatzen dute eta "gorputza apurtzera bultzatzen duten erritmoekin, kaleko lagunok jasaten ditugun injustizia eta torturen kontrako letra sendoeekin" datoz. Martxoaren 20an Bilboko Kafe Antzokian, Apirilaren 4an Donostiako Dokan, Apirilaren 10ean Gasteizko Jimmy Jazzen eta Maiatzaren 10ean Olaztiko Gaztetxean eskainiko dituzte kontzertuak.

XABI ABURRUZAGA, trikitizale tradizionalak azken diskoaz zer esaten dioten galdetuta:

“Nire kritikorik garrantzitsuena nire aita da. Nire aita oso trikitizalea da, batez ere, trikitixa zaharra gustatzen zaio eta berari gustatzen zaio diskoa. Egia da hau nire hirugarren diskoa dela. Aurreko diskoan, Bizkaiko trikitixan, trikitilari zaharren doinuak hartu eta ukitu berri batekin grabatu nituen eta hori da nire aitaren diskorik kutunena zalantza barik. Hemen kantu berriak daude eta gustatu zaio, baina kanta batzuk ez ... Kantu batzuetan gitarra elektrikoak eta sartzen ditugunean gehiago kostatzen zaio onartzea.”

(Faktoria. Euskadi Irratia, 2014-01-22)

XABIER BERASALUZE “LETURIA”.

“Oso onak zaretela entzuteaz ez al zaudete nazkatuta?” galderari erantzunez:

“Nik uste hori baino xeheagoa izan behar duela pertsonak. Onak garela? Ba, jendeari hala iruditzen bazaio, aurrera! Oso gustura entzuten dugu baina gure pentsamendua ez dago hor. Ikusten dugu beste batzuk ere gu baino hobeak direla, bai Euskal Herri mailan eta mundu mailan zer esanik ez! Beti dago nondik xurupatu eta zer ikasi.”

(Kantu kontari. Euskadi Irratia, 2014-02-22)

TRIKITIA ETA BIOLIN SOINUAK BAIGORRIN ETA MUNDUAN ZE HAR

2013an trikitixa eta biolina uztartzeko proiektu bat jarri zuen martxan Ezpeletako trikitilari talde batek. 15 eta 19 urte bitarteko neskek osatzen dute eta Irlandako musika talde batekin trukea egin zuten urrian. Kontzertu arrakastatsua eskaini zuten otsailaren 7an Baigorriko Bixentenan, taldea diruz lagundu duen elkarte bati eskerrak emateko.

TRIKITILARIAK PROTAGONISTA SAREAN

Pantailaz pantaila ibili da azken boladan Joseba Andoni Urrutia eta Xabi Aburruzaga trikitia eta panderoa lau eskutara jotzen agertzen den bideoa. Jende askok partekatu du Whatsapp, Facebook, Youtube, Vimeo... bidez. Bideoak izan duen arrakastaren erakusle da ETB1eko Kontrako Eztatia programan ere agertu izana eta elkarrizketa ere egin zioten Joseba Andoniri Euskadi Irratiko faktoria saioan.